

## 15 - HERRAN - LA HORCA MENDATEA (2017-10-21)

### EZAUGARRIAK

**DISTANTZIA:** 21 km.

**DESNIBELA:** + 975 m ./ - 650 m.

**DENBORA:** 6 or. - 6 or. 15 ´

Herran herrixkaren aparkalekuan hasiko da etapa (576) eta 250 bat metrotan herrixkara iritsiko gara. Etapa horretako lehenengo bi kilometroak ezagunak egingo zaizkigu aurreko etapan kontrako norabidean eginak ditugulako. Puron ibaiaren gaineko lehenengo haitzartetik pasako gara eta berehala, gure ezkerrean eta harkaitz bati itsatsita, San Roque baselizaren hondakinak ikusiko ditugu. Aurrerago, Villafria de San Zadornil herrixkatik datorren bidegurutzera iritsi gara, hain zuzen ere aurreko etapan jaitsi gunen lekura (648). 2 km.

Toki horretan gaudela, Araba probintzian gaude. Gorantz jarraitu eta handik 750 metrora, Puron ibaiaren bigarren haitzartera, zeina ikusgarriena baita (712). 2,7 km.

Aldi batean ibaiaren ondotik ibiliko gara langa bateraino iritsi arte: Langa pasa ondoren, Valderejoko Natur Parkearen belardietara iritsiko gara. Belardiaren amaieran, Ribera herriaren hondakinak aurkituko ditugu, San Esteban eliza bertan dagoela (766). 4,3 km.

Zutik dagoen eraikin bakarra da, baina oso hondatuta dago. Pintura batzuk ikusi ahalko ditugu elizaren hormetan. Pagadi batetik, leunki gorantz doan pista batetik Anderejo mendilerroaren aldera iritsiko gara (1098). 8,1 km.

Han gaudela, joan-etorrian Vallegrul mendiaren tontorrera iritsiko gara (2,3 km) (1224). Bidegurutzean berriro gaudela, 750 bat metro egin ondoren, San Lorenzo ermitara iritsiko gara (1052). 11,2 km.

Valderejo haranaren ikuspegi orokorra aurrean izango dugu, Lahoz eta Lalastra auzoak atzean daudela, Karria Harkaitzeko amildegiek eratzen duten zirkuaren amaieran. Aurrera jarraituko dugu, desnibel handirik gabe, Recuenco tontor leuneraino iritsi arte (1242). 16,6 km.

Handik jaisten hasiko gara, El Gustal menhirretik (1200), Leronetik (1159) pasatuz eta la Horca mendatera iritsiko gara, Araba eta Burgos arteko mugara. (902) 21 km. Eta hortxe amaitzen da etapa.

*Etapa erraza da, desnibel gutxikoa eta Vallegrul mendira ez igotzeko aukera badago, eta azken tartea ere moztu ahal da. Horrela eginez gero, 4 bat kilometro gutxiago egin ahal dira.*